# SUPERPORTURIK EZ!

AS175

## PROIEKTU TXIKITZAILEAK GELDITU!



Protesta ekintzak

Kontzertuak

Tailerrak

Antzerkiak

Hitzaldiak

Mendi martxak

Eztabaidak

Bazkariak

eta gauza gehiago

TLFNOA AKANPADAN: 605413287. Ohizko Tlfnoa *(habitual)*: 943-300979.
e.mail: ahtez@sindominio.net Apdo 3243 postakutxa. 20080-Donostia.
TXERRIMUINO: K/ ZUBITXO 13. 20100-LEZO

# AHT-REN AURKAKO AKANPADA

# ACAMPADA CONTRA EL TAV

## AHT-REN AURKAKO AKANPADA JAIZKIBELEN EGINGO DA SUPERPORTUAREN EGITASMO TXIKITZAILEA SALATZEKO

Uztailaren 24tik abuztuaren 3ra bitarte, Jaizkibelen egingo da AHTren Aurkako Asanbladak urtetik urtera eratzen duen akanpada, "SUPERPORTURIK EZ! PROIEKTU TXIKITZAILEAK GELDITU!" lemapean. AHTren aurkako 8. Akanpada honen bidez, Abiadura Handiko Trenaren aurkako borroka hedatzen segitu nahi dugu eta Pasaiako superportuaren ondorioz Jaizkibelgo itsasertzak pairatuko lukeen eraso ikaragarria salatu, egitasmo horren oposizioan iharduten dutenekin. Beraz, jende guztiari mobilizazio honetan parte hartzera dei egiten diogu, proiektu erasokor eta justifikaezin horren kontrako erantzunari bultzada bat emateko eta hamaika aurpegi dituen desarrollismoaren aurrean komunikazio kritikoa, borroka kolektiboa eta norbanakoaren eraldaketarako grina zuzpertu nahi dituen topagune bat sortzeko.

Azpiegitura-lan erraldoiek interes kapitalistei baino ez die mesede egiten eta AHTren aurkako oposizoak Superportuaren kontra altxatzen ari diren ahotsekin bat egiten du, makroproiektu hori inoiz gauzatuko balitz Jaizkibelgo itsasertzak bere balio naturalak interes ekonomiko eta desarrollista hutsen probetxurako galduko lituzkeela salatzeko. Zertaz ari gara superportuaz dihardugunean? Egin kontu: Jaizkibelgo kostaldea erabat suntsitzeko asmoa dute, balio natural goreneko eta babes bereziko gunetzat jotzen diren itsaslabarretan eta itsas-ingurunean 54 milioi metro kubiko lur erauzi eta 232 hektareako portu-zabalgunea eta 3,4 kilometroko dikea eraikitzeko. Bestalde, egitasmoan 6 milioi metro kubiko hormigoi erabiliko direla aurrikusten da, eta *"kopuru horien eskuragarritasuna, baita 50 kilometroko inguruan dauden harrobi guztiak ustiatuta ere, zalantzagarria dela"* ohartarazten da.

Bistan da Jaizkibelen, Itoitzen eta AHTren proiektuan bezalaxe, hondamendia desarrollismoaren izenean eta klase politikoaren gehiengo baten ikuspegi ustelagatik justifikatu nahi dela, suntsiketa ekologikoarekin batera bizibaldintza sozialak ere okertzen direla zeharo ahaztuta. Gogor salatzen dugu gainera Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Jaizkibelgo itsasertzari aitortzen zaion babes bereziko izendapena ezabatzeko erabaki larria hartu berri dutela superportuaren egitasmoak kalteturiko eremuan, Merkataritza Ganberaren eta Portu Agintaritzaren presioei men eginez, proiektua nola edo hala "enkajatu" eta bere onarpena ez eragoztearren. Hots, Nafarroako Gobernuak Itoizko urtegiak kalteturiko natur erreserben babes eremuak kendu zituenean bezalaxe, makurkeria berri honekin Jaizkibelgo itsasertza babesteko azken urte hauetan finkatu diren irizpide eta arau guztiak ezereztu nahi dituzte, salbuespenik gabe, joan den martxoan aurkeztu duten *"Donostialdea-Bidasoa Behea Zatikako Lurralde Plana"*ren arabera.

Plan horretan, bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak AHTrentzat proposamen berria planteatu dutela eta alerta piztu nahi dugu: izan ere, garraio azpiegituren arloko beste munstrokeria bat bultzatzen du, aldi berean AHT eta Autopista berri bat batzen dituen korridore zabal-zabal bat eraikitzeko asmoa zehazten baitu, Urumean Epele eta Landarbasotik, Oiartzunen Xenpelar, Iturriotz, Karrika eta Ergoiendik, eta Bidasoan Olaberria, Hirusta eta Biriatutik barrena. Hortaz, Donostialdeko hegoaldean hedatzen diren lurralde menditsu eta bailaretan urradura beldurgarri bat

## LA ACAMPADA CONTRA EL TAV SE REALIZARA EN JAIZKIBEL EN DENUNCIA DEL SUPERPUERTO

Del 24 de julio al 3 de agosto, la acampada organizada anualmente por la Asamblea Contra el TAV se realizará en el monte Jaizkibel bajo el lema "¡NO AL SUPEPRUERTO! ¡STOP A LAS GRANDES INFRAESTRUCTURAS!". Mediante esta 8. Acampada contra el TAV, queremos seguir extendiendo la determinación contraria al Tren de Alta Velocidad y denunciar junto con el Colectivo Contra el Superpuerto el brutal atentado que se pretende cometer en el litoral de Jaizkibel con el proyecto del "Puerto Exterior" de Pasaia, creando asimismo un espacio participativo de encuentro, de comunicación crítica y de movilización que estimule la lucha colectiva y los deseos de transformación personal frente a las brutrales consecuencias sociales y ambientales del desarrollismo.

Desde la Asamblea Contra el TAV nos unimos a las voces que se están alzando contra el Superpuerto denunciando la sinrazón de este macroproyecto que solamente beneficia a los intereses capitalistas y que de llevarse a cabo ocasionaría la destrucción del litoral de Jaizkibel en función de intereses económicos y puramente desarrollistas. Solo queremos apuntar unos datos que demuestran por sí solos la dimensión gravísima de los impactos de este proyecto: el Superpuerto exige la destrucción integral de los acantilados y del medio marino calificados de sumo interés naturalístico a lo largo de 3 kms de costa donde se procedería a la excavación de 54 millones de metros cúbicos de material destinados al relleno de una superficie de 232 hectareas para la explanación de los muelles sobre el mar y la construción de un dique principal de 3'400Kms. Al tiempo que el Anteproyecto cuantifica en otros 6 millones de metros cúbicos el volúmen de extracción de piedra en canteras para la ejecución de de escolleras y fabricación hormigón, respecto a lo cual advierte que *"la disponibilidad de estos volúmenes, aún empleando a todas las canteras situadas en un radio de 50km, es dudosa"*.

Claro está, en Jaizkibel igual que en Itoiz y en el proyecto del TAV, el gigantesco naturicidio que padecemos se intenta justificar por el desarrollismo y la corrupta visión de una clase política mayoritariamente aborrecible, que todavía no ha entendido que la destrucción ecológica también conduce, antes o después, al deterioro de las condiciones de vida social. A este respecto, denunciamos que el Gobierno Vasco y la Diputación de Gipuzkoa, respondiendo a las "recomendaciones" de la Camara de Comercio y la Autoridad Portuaria, han planteado recientemente la anulación de la categoría de especial protección del area afectada en el litoral de Jaizkibel por el Superpuerto, con el fin de "encajar" el proyecto y eliminar trabas a su aprobación. Es decir, están siguiendo perversamente el mismo derrotero que el Gobierno de Navarra cuando éste eliminó las bandas de protección de las reservas naturales afectadas por el pantano de Itoiz. Se oponen y enfrentan con esta decisión adoptada en el marco del *"Plan Territorial Parcial de Donostialdea-Bajo Bidasoa"* presentado el pasado mes de marzo a todos los criterios de ordenación y protección del litoral de Jaizkibel elaborados hasta ahora, acreditativos todos ellos del máximo valor natural y del elevado interés asignado a su estricta protección.

Además, en dicho Plan el Gobierno Vasco y la Diputación de Gipuzkoa lanzan una nueva propuesta para el TAV sobre la que es preciso dar alerta: en efecto, se define el proyecto de construir un gigantesco "Corredor Exterior" doble (viario y ferroviario) en el que la creación de una nueva Autopista Exterior se concibe simultáneamente con un nuevo trazado para el TAV *"con doble capacidad para viajeros y mercancias"* (plataforma con vía triple), ocasionando la conjunción de ambas infraestructuras una enorme cicatriz en las estribaciones montañosas que bordean los valles del Urumea (Epele y Valle de Landarbaso), del Oiartzun (Xenpelar, Iturriotz, Karrika y Ergoien) y del Bajo Bidasoa (valle alto de

eragingo luke AHT/Autopista zeharbide bikoitz horrek. Gainerakoan, AHTren auziaren egungo egoerari buruz, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Sustapen Ministerioak inposatze egitasmoari eusten diote, AHTren inguruan gizartean dagoen desadostasun nabaria aintzat hartu gabe. Jendearen partetik AHTren aldeko jarrerarik ez dago, eta erresistentzia ere topatu du egitasmoak; atzerapenak izaten ari dira, bai oposizioaren ondorioz eta baita "Euskal Y"aren eraikuntza-proiektuen kontratuak kontrolatzeko -eraikuntza lanak asi aurretik azken urratsa izan nahi du horrek- bi gobernuen artean sortu diren ika-mikengatik ere.

Hortaz, lurrari erasotzen dioten aberrazio infraestrukturalak gelditzeko eta instituzioetatik bultzatzen ari den garapen eredu suntsitzailea zalantzan jartzeko, borroka batean zein bestean, mugi gaitezen. Gure proposamenak ondorio ekologiko eta sozial larriak sortzen dituzten azpiegitura erraldoiak bertan behera uztea eskatzen du. Nolanahi ere, zoroen kontua mundu zabaleko ingurumen suntsidura larriari eta ezberdinkeria sozialen areagotzeari erreparatu gabe egungo gizarte eta ekonomia eredu desarrollistak aurrera jarrai dezakeela pentsatzea. Hazkunde mugagabea? Zertarako? Norentzat? Hazkundearentzat berarentzat? Asmo horrek ez du inolako zentzurik: mugarik gabeko hazkundearen ideia eta proiektua bere amaieran da.

Hori denagatik, Jaizkibelen egingo den akanpadan parte hartzeko dei egiten dugu, mobilizazioari eusteko eta era berean elkarren artean ezagutu eta gizarte harremanak eraldatzeko egiten diren esperientziak trukatzeko aukera izateko. Zuen parte hartzea espero dugu beraz eta deialdi honen berri zuen inguruan ematea eskatzen dizuegu.

---

Olaberria e Hirusta en Irun, asi como Biriatu). Finalmente, en cuanto al estado actual de la controversia del TAV, el Gobierno Vasco y el Ministerio de Fomento persisten en su intento de consolidar la imposición, ignorando la existencia de un desacuerdo social importante. No presionados a favor por la población, e incluso encontrando resistencia, los estudios del proyecto constructivo de la "Y Vasca" -último paso previo al pretendido inicio de las obras- siguen avanzando con algunos retrasos debidos a la oposición desarrollada en los pueblos donde el rechazo del TAV es firme y a las propias disputas mantenidas entre ambos gobiernos por el control de las contrataciones.

La oposición al TAV se unirá por tanto en esta acampada a la denuncia del Superpuerto porque entendemos que son parte de una misma lucha por detener las aberraciones infraestructurales que agreden la tierra y por cuestionar el destructivo modelo desarrollista que se promueve desde las instituciones. La propuesta que hacemos exige el abandono de los proyectos de grandes infraestructuras debido al enorme impacto ecológico y a la fortísima inidencia que implican en el propio modelo de sociedad. En resumidas cuentas, parece demencial no tener presentes las limitaciones de la naturaleza y propiciar un modelo economico y social desarrollista y dominador que está causando la expansión de las desigualdades sociales e infinidad de intervencions y políticas destructivas en todo el mundo. ¿Crecimiento indefinido? ¿Para qué? ¿Para quien? ¿Para él mismo? Este proyecto no tiene ningún sentido: la idea y el proyecto de un crecimiento sin límites está en su final.

Por todo ello, animamos a todo el mundo a participar en la acampada de Jaizkibel para sostener la movilización y crear igualmente un lugar de encuentro y comunicación que permita profundizar en el conocimiento mutuo e intercambiar experiencias de lucha por la transformación social. Esperamos vuestra participación y os invitamos a difundir este llamamiento en vuestro entorno.

---




**LUGAR DE ACAMPADA Y SERVICIO DE AUTOBUS DESDE LEZO:** La acampada se instalará en el monte Jaizkibel, en las cercanías de la "Kantina" (merendero) existente en el Km 4'500 de la carretera de subida a Jaizkibel desde Lezo/Pasai Donibane, entorno situado sobre el litoral afectado por el proyecto del Superpuerto. Para facilitar la accesibilidad se ha previsto montar un servicio de autobus para subir a la acampada desde Lezo (ver horario). La bajada a Lezo se realiza facilmente andando (unos 20mn) y también puede subirse a pie a la acampada (desde Lezo son unos 35mn cuesta arriba y se marcará el itinerario a partir de la casa Txerrimuño). De esta forma, se propone utilizar cuando sea posible el autobus para limitar el uso del automóvil. **Servicio de autobus** (salidas desde la parada de autobus de Lezo situada al lado de la casa Txerrimuño): **Jueves 24:** 18h. **Viernes 25:** 22h. **Sábado 26:** 10h. **Lunes 28:** 14h. **Miercoles 30:** 14h. **Jueves 31:** 14h. **Viernes 1:** 14h. **Sábado 2:** 22h. **Domingo 3** (acampada-Lezo-Errenteria): 20h.

**ACTIVIDADES EN LA ACAMPADA Y EN LOCALIDADES VECINAS:** Además de las actividades que se llevarán a cabo en el lugar de acampada (charlas y debates, talleres, marchas montañeras, actuaciones de teatro, música), se desarrollarán también acciones informativas y de denuncia en las localidades vecinas de Lezo, Pasaia y Hondarribia para comunicar en la calle la denuncia del Superpuerto y de las grandes infraestructuras de elevado impacto ecológico y social. Animamos por tanto a unirse igualmente a las acciones informativas y de protesta que se llevarán a cabo en estas localidades (ver programa).

**"TXOKO INFANTIL":** Se preve instalar una gran tienda para acondicionar un txoko infantil. Traer juguetes...

**TALLER DE PAN:** A lo largo de la acampada también se realizará un taller de pan en el horno de la República Independiente de "Minas" de Arditurri.

**ZONA GANADERA:** La acampada se realizará cerca de una zona ganadera, por lo que es recomendable que no se traigan perros, y en caso de hacerlo, se actúe con responsabilidad.

**LUGAR DE ENCUENTRO AUTOGESTIONADO:** La acampada contra el TAV es un lugar de encuentro autogestionado y funciona gracias a la implicación de la gente que participa en ella (comidas, montaje, desmontaje, limpieza). Por otra parte, no aceptaremos actitudes sexistas. Para terminar, agradecemos a las personas que se animen a echar una mano para montar la infraestructura de la acampada (a partir del lunes 21 de julio) por avisarnos de su disposición con antelación. También si quereís recibir material (carteles, pegatinas, panfletos) o bien obtener más información o realizar alguna propuesta, poneros en contacto.

**KANPALEKUA ETA AUTOBUS ZERBITZUA LEZOTIK:** Kanpaldia Jaizkibelen egingo da, Lezo/Pasai Donibanetik Jaizkibelera igotzen den errepidean 4'500 Kilometroan dagoen "Kantina"ren inguruan. Superportuaren egitasmoak kalteturiko kostaldearen gainaldean dago toki hori. Akanpadara etortzeko erraztasunak emateko, Lezotik autobus zerbitzu bat jarriko da (ikus ordutegia). Kanpalekutik Lezora oinez erraz jaisten da (aldapa behera 20 minutu inguru behar da oinez), eta akanpadara oinez ere igo daiteke (aldapa gora 35 minutu inguru behar da eta Lezoko Txerrimuño etxetik abiatuta ibilbidea seinalatuko da). Era honetan, autobus zerbitzua erabiltzea gomendatzen dugu ahal den neurrian autoen erabilera murrizteko. **Autobusaren ordutegia** (irteerak Lezoko autobus geltokitik izango dira, Txerrimuño parean): **Osteguna 24:** 18etan. **Ostirala 25:** 22etan. **larunbata 26:** 10etan. **Astelehena 28:** 14etan. **Asteazkena 30:** 14etan. **Osteguna 31:** 14etan. **Ostirala 1:** 14etan. **Larunbata 2:** 22etan. **Igandea 3** (Kanpalekua-Lezo-Errenteria): 20etan.

**KANPALDIAN ETA INGURUKO HERRIETAN EGINGO DIRA EKINTZAK:** Kanpalekuan egingo diren ekitaldiez gain (hitzaldi eta eztabaidak, tailerrak, mendi ibilaldiak, antzerki eta musika emanaldiak), Lezon, Pasaian eta Hondarribian proiektu txikitzaileen eta Superportuaren aurkako protesta kaleratzeko salaketa eta ekintza informatiboak egingo dira. Hortaz, akanpadarekin bat egiteko eta ekimen honen inguruan herrietan egingo diren ekintzetara ere biltzeko dei egiten dugu (ikus egitaraua).

**HAURRENTZAKO TXOKOA:** Kanpaldian denda handi samar bat jarriko da haurrentzako txoko bat egokitzeko. Jostailuak ekarri...

**OGI TAILERRA:** Akanpadan zehar ogi tailerra egingo da Arditurri "Minetako" Errepublika Independientean duten labean.

**ABELTZAINTZA INGURUA:** Akanpada abeltzaintza inguru batetik hurbil egingo denez, txakurrak ez ekartzea gomendatzen da, eta bestela arduraz ibiltzea eskatzen da.

**TOPAGUNE AUTOGESTIONATUA:** Akanpada topagune autogestionatua da eta bertan biltzen garenen artean eramaten dugu aurrera (garbiketak, otorduak, montaketa, desmontaketa...). Bestalde, ez dugu jarrera sexistarik onartuko. Azkenik, kanpaldia hasi aurretik azpiegitura montatzen laguntzeko prest dauden lagunei (uztailaren 21 astelehenetik aurrera egingo dugu hori) aldez aurretik abisatzea eskertuko diegu, ea jende nahikoa biltzen garen. Era berean, materiala eskuratu nahi baduzue (kartelak, pegatinak, panfletoak), edota informazio gehiago eskatu nahiz proposamenak egiteko, harremanetan jarri zaitezte.

**UZTAILAREN 24 tik**
**ABUZTUAREN 3 ra**
**JAIZKIBELEN**

